

A215. GIZARTE HEZKUNTZA

BIGARREN ARIKETA

Denbora, gehienez: 120 minutu.

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz atariko orri honetan emandako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman beharko dira. Zuzentzeko irizpideak aldeztatik zehaztuko dira.
- Galdera bakoitzaren gehienezko puntuazioa enuntziatuan bertan adierazten da, baldin eta ezberdinak badira.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan hauek adieraztea:
 - **LEP kodea (A215)**
 - **Identifikazio-gakoa**
 - **Orri-zenbakia / erabilitako orriak, guztira** (gehienez 2 orri/4 orrialde)

Eskerrik asko zure laguntzagatik

LAN TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA

Harrera Sozialerako Udal Zentroa (CMAS) 70eko hamarkadan egindako eraikina da; Mediterraneoaren hiribidean dago, hiriaren mendebaldean.

Argi berezitateko bi talderi bizileku emateko sortu zen, eta horretarako erabili zen hiru hamarkadatan baino gehiago: batetik, iragaitzeko pertsonak; bestetik, bizi-dimentsio batzuetan bazterkeriak eragindako pertsonak eta babestutako beste pertsona batzuk, gizarte-babeserako sistema orokorreko beste ostatu baliabide batzuetan sartzen ez zirenak.

Udalerrian gertatutako aldaketa sozio-ekonomikoen ondorioz, etxebizitza bazterkeria egoeretara (PSER edo EBEP) egokitu zen, berehala eta urgentziaz harrera emateko baliabide gisa, edukiera handikoa (67 leku) eta berehalako erantzuneko.

Irisgarria da kanpotik zein barrutik, eta bi bizitza-espaziotan dago banatuta; horiek argi berezitate daude, eta bertan bizi direnak baino ezin dira sartu bakoitzean:

- Hegoalde: bizikidetzaren unitateentzat; bainugela duten logelak, sukaldea (erabilera programaturakoa) eta ludoteka ditu.
- Iparralde: bakarrik dauden pertsonentzat egokitua; garbigelak komunak dira.

Erabilera partekatutako guneak: harrera; ikuztegia; jangela; egongela; irakurgela; brikolaje lantegia; kontsigna; infoteka (zaintzapeko erabilera); estali gabeko barrualdea, erretzeko; komunak beheko solairuan, eta edari beroak zerbitzatzeko makinak (erabilera libre).

Erabilera mugatutako guneak: administrazioa eta bulegoak.

Hauek osatzen dute lan-taldea: zentroko arduraduna, gizarte langile bat, bi hezitzaile (dedikazioko lanaldi bat eta erdi osatzen dutenak), psikologo bat (lanaldi partzialez), gizarte-integrazioarako bi figura, eta administrari bat. Gainerako langileak "jagole" eta "garbitzaile-zerbitzari" figuretan sartzen dira.

Kanpoaldean bi gune mugatu ditu —haurrentzako jolasgunerako eta baratzezaintzarako—, lorategiak, aparkalekua eta egoteko gunea-terraza.

Geografikoki "San Martin" lehen mailako arretako zentroaren osasun eremuari dago atxikia, zeinak CMASi arreta emateko berriazko plana baitu.

Inguruan dituen arreta, aisialdi eta jarduera baliabideak: Lakua-Sansomendiko gizarte etxea, Ariznabarreko kiroldegia, San Martineko lorategi-eremuak, eta aire zabalean jolasteko guneak.

Harrera baliabidearen deskribapen hori kontuan hartuta, zenbait galdera egingo dira gizarte hezitzailearen esku hartzeari buruz, **teknikari taldearen kidea den aldetik eta bere profil profesionalaren ikuspuntutik.**

******* Gogoan izan: azterketaren gehienezko luzera: 4 orrialde (2 orri) *******

1. KASUA

P. A. 44 urteko gizonzkoa da, Polonian jaioa, eta 2010etik bizi da hirian. Ez du bizileku finkorik, eta hainbatetan galdu du erroldako erregistroa. Gizarte entitateen eta udal profesionalen laguntza jaso du aldika bere beharrak asetzeko, haren egoera emozional, fisiko eta sozialaren arabera egiten dituen eskaerei erantzunez: mantenua (jantoki soziala), ostatua (gaueko zentroa, neguan ostatu emateko bitartekoa), egoteko lekua eta aterpea (eguneko zentroa), akonpainamendua (erregularizazio administratiboa lortzeko izapideak).

Herrialdean ez du sostengu emateko lehen mailako familia sarerik, ezta lagun sarerik ere, espazio publikoan (hiriaren erdialdean) kontsumitzeko besterik gabe sortzen den taldea kenduta. Batzuetan eskaera txikiko baliabideetan bizi da, eta besteetan, infraetxeetan edo kalean. Ez du inolako lan-jarduerarik egin, eta ez da okupazio-jardueretan inplikatu.

Azken bi urteetan, kaleko espazio berean egonkortu da, eta udalaren gizarte-zerbitzuen akonpainamendu jarraitua onartzen du. Agiri eta egoitza egoera erregularizatzea lortu da (osasun-txartela, nortasun-agiriak, errolda soziala), eta bestelako beharrak betetzea: elikadura (jantoki soziala), higiena eta jantzien garbiketa (eguneko zentroa), osasuna (azterketa lehen mailako arretan eta adikzioen alorreko arreta espezializatua). Bazterketa egoera larrian dauden pertsonekin ingurune irekian lan egiten duen hezitzaile bikoteak abiarazi zuen ibilbidea, eta talde bereko gizarte-langilea eta psikologoa ere batu zaizkie, arreta jasotzen duen pertsonaren erabakiak eta erritmoak errespetatuz.

Bere egonlekuan duen eguneroko dinamikaren behaketatik ondorioztatzen denez, ingurua, higiena pertsonala eta jantziak antolatzeke ohiturei jarraitzen die, esnatzeko eta oheratzeko ordu jakinak ditu, eta jantokira eta eguneko zentrori doa. Gainera, musikarako trebetasuna du, instrumentu bat jotzen baitu, eta horretan ari den bitartean okupatuta eta aldarre egonkorrean dago. Batzuetan edari alkoholadunen —hartzituak oro har— gehiegizko erabilera aitortzen badu ere, jokabidez aldatzeko eta kontsumo kontrolatu batera igarotzeko motibazioari oso aldi labur batez eusten dio; hala ere, horrek aukera ematen du adikzioetan espezializatutako zentro publikoan horri heltzeko. Tratamenduarekiko atxikimendua ezegonkorra da, eta ez da beti agertzen hitzorduetara, baina ez du behin betiko uzteko asmorik agertzen. Musika jotzen duenean ibiltariengandik jasotzen dituen diru-kopuru txikiez ordaintzen ditu kontsumoak, baita ohitura hori hartu duten bi emakumeren eskuzabaltasunari esker ere.

Ebakuntza kirurgiko bat egin behar zaiola eta osasun aldetik geroko sendaketarako gela bat behar duela baliatuz, CMASen sartzera onartzen du.

Iristean, barruko araudia ulertu, onartu eta sinatzen du; araudian garrantzitsuak dira alderdi hauek: bizikidetzara egokitzea, otorduak hartzeko eta iristeko ordutegiak betetzea eta kontsumitu delarik ez agertzea, ezta zentroan kontsumitzea ere.

Ibiltzeko autonomia berreskuratu ondoren, otorduen ordutegia errespetatzeko betekizuna urratzen du, eta nahiago duela ohiko taldearekin ibili adierazten du (hau da, jantoki sozialarekin, dirua ematen dioten plazarekin eta eguneko zentroaren lotutakoa). Kontsumitzen hasten da, eta intoxikatuta iristen da 22:00ak eta 23:00ak artean. Zentroaren araudiaren arabera sartzeko azken ordua 22:00 dela gogorarazten zaio. Hurrengo bi gaueetan ez da lo egitera agertzen.

Egindako gizarteratze-ibilbidean harekin lotura handiena izan duen kale-hezitzailearen bitartez berriro CMASen lo egitea eskatzen du, sartzeko ordutegia betez, baina otorduak hartu gabe. CMASen arduradunak bilera batera deitu du, teknikari taldeak erabaki bat adostu dezan.

GALDERAK:

1. Kasua aztertu, gizarte-bazterkeriaren ikuspegitik zein bizi-eremu, dimentsio edo arlo dauden ukituta eta zein ez aipatuz. Informazioa falta bada, adieraz ezazu zein giza baliabide eta baliabide material dagoen eskura hori lortzeko. (5 puntu)
2. Zein argudio erabiliko zenuke egindako eskaria ONARTU ala UKATZEKO? (aukera bakarra). (5 puntu)
3. Diseinatu ezazu taldeari azalduko zeniokoen banakako arretarako ibilbidea aukeratu duzun egoerarako, hilabetez garatzekoa; hiru helburu jaso beharko ditu, jarduerak, metodologia eta ebaluazioa barne. (10 puntu)

2. KASUA

CMASeko jagoleek teknikari taldeari jakinarazi diotenez, 6-9 urte bitarteko haur batzuk jolasean ibili ohi dira haien ardura duten helduen zaintzarik gabe, eraikinaren barruan zein kanpoan.

Harrerako elkarrizketan kontrakoa adierazi arren, gurasoek jagoleen esku uzten dute seme-alabek zaintza, eta ezikusia egiten diete dauden arrisku potentzialei: eredu nabarmen ezegokia ematen duten jokabideak dituzten pertsonak, arriskuak haien osotasun fisikorako —errepidea, esparrura sartzen diren autoak, ate lerragarria, eskailerak, igogailuak...—, eta beste.

Egoera horren aurrean, teknikari taldeak erabaki du esku hartzeko plan bat diseinatzea gurasotasunaren ikuspuntutik gabeziak dituzten jokabide horiek aldatzeko, zenbait ekintzaren bitartez.

GALDERAK:

1. Zein babesgabetasun mota ikusten duzu egoera horretan? (0,5 puntu)
2. Adierazi egoera bakoitzaren arrisku-maila balioesteko kontuan hartu beharreko 4 alderdi. (0,5 puntu)
3. Proiektuaren barruan sartu beharreko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak diseinatzeko agindu dizute. Gara itzazu 4 ekintza, eta deskribatu horien edukia, helburuak, ebaluazioa eta horietako bakoitzak lantzen duen babesgabetasun mota. (9 puntu)